

Nola neurtu tokiko jasangarritasuna

Euskal Autonomia Erkidegoko
tokiko jasangarritasun
adierazleen sistema

2017



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA
ETA ETXEBIZITZA SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA



udalsarea21

jasangarritasunerako udalerrien euskal sarea
red vasca de municipios hacia la sostenibilidad

© Ihobe S.A., 2017ko martxo

**Argitaratzailea: Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa
Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila
Eusko Jaurlaritza**

www.ingurumena.eus www.udalsarea21.net

**Urkixo zumarkalea, 36, 6. solairua
48011 Bilbao
Tel: 900 15 08 64**

Edukia: Dokumentu hau Ihobe sozietate publikoak egin du, ENEA Estrategias para la Sostenibilidad, S.L. enpresaren laguntzarekin

Argazkiak: Irekia-Eusko Jaurlaritza – Mikel Arrazola

AURKIBIDEA

TESTUINGURUA ETA AURREKARIAK	5
IKUSPEGIA ETA HELBURUAK.....	8
PRESTAKETA	13
TOKIKO JASANGARRITASUN ADIERAZLEEN SISTEMA.....	14
INGURUMEN ARLOAK	16
GIZARTE ARLOAK	78
EKONOMIA ARKOAK.....	105
GOBERNANZA	113
AKRONIMOAK	126
ERREFERENTZIAK.....	127
ERANSKINA	129



TESTUINGURUA ETA AURREKARIAK

Tokiko jasangarritasun-politika publikoen helburua da herri eta hirietan bizi diren pertsonen bizi-kalitatea hobetzea. Eta bizitza erdian jartzen duen gizarte, ekonomia, lurralde eta ingurumen-kalitatearen kohesio-eredu batean oinarrituta egiten dute hori.

ICLEI Jasangarritasunaren aldeko hiri eta eskualdeen nazioarteko erakundeak zehazten du eredu hori; Euskal Adierazpena da, mundu bizigarri eta inklusibo baterako, hiri eta herri produktiboagoak, jasangarriagoak eta erresilienteagoak lortzeko bide-orri berria.

Aldi berean, Euskal Adierazpenak hiriak eta gizartea eraldatzeko ekintzak sustatzen dituzten nazioarteko erreferenteekin bat egiten du; hor daude, besteak beste, **Klimari buruzko Pariseko Akordioa** eta **Garapen Jasangarrirako 2030erako Helburuak**.

Udalsarea 21 jasangarritasunerako udalerrien euskal sarea izan zen Hiri eta Herri Jasangarrien 8. Biltzarraren bultzatzaileetako bat; testuinguru horretan onartu zen Euskal Adierazpena.

2002. urteaz geroztik, EAEko tokiko jasangarritasun-politika publikoen garapena bultzatzen du Udalsarea 21ek; politika horiek **Tokiko Agenda 21** egitasmoaren inguruan antolatzen dira gehienbat.

Udalerrien sareak sare-kideen arteko lankidetzako lan-esparrua ezartzen du, eta jasangarritasun-politikak ezartzeko funtsezko euskarri-zerbitzuak ematen dizkie. Zerbitzu horien artean, nabarmentzekoak dira jasangarritasuneko ekintza planak diseinatzeko, ezartzeko eta horien jarraipena egiteko tresna metodologikoak eta informatikoak eta aholkularitza eta laguntza teknikoko zerbitzuak.

Testuinguru horretan, Udalsarea 21en **Tokiko Jasangarritasun Adierazleen sistema** tresna indartsua da, udalerrien eta eskualdeen egoerari buruzko informazioa eman eta arazoak eta hobetu beharreko egoerak identifikatzen laguntzen duena. Adierazleak aldizka kalkulatzeko politiken emaitzak eta eraginkortasuna ebaluatzen laguntzen du, eta toki kudeaketan erabakiak hartzeko euskarritzat balio du.

Udalsarea 21ek 2003an diseinatu zuen lehenengo Toki Jasangarritasun Adierazleen sistema (TJAS); horrek, egindako ekintzaren ebaluazioarekin batera, Euskadiko Tokiko Agenda 21 egitasmoen jarraipena egitea ahalbidetzen du urtetik urtera.

Sistema hori udalerrien eta eskualdeen eskakizun berriei eta jasangarritasun-politiken garapenari egokitzeko beharrak bultzatuta, Udalsarea 21ek eguneratu egin du hasierako TJAS. Eguneratze horrekin, ingurumenari, gizarteari eta ekonomiari dagozkien alderdien neurketa sakonagoa egiten da, eta gobernantzako adierazleak gaineratu ditu, jasangarritasunaren zeharkako irakurketa lortzeko, bai toki-mailan bai eskualde-mailan, datuak sartzeari eta **EAEko Toki Jasangarritasunaren Behatokian** egiten den datu horien analisiari eta interpretazioari esker.

Sistema berriak EAEko udalerrri guztietarako lan-esparru bakarra ezartzen du, oinarritzko adierazle-multzo batean oinarrituta. Aldi berean, berriazko eskakizunei erantzuteko behar adinako malgutasuna du; neurrira egindako adierazle-sistemak diseinatzeko aukera ematen du, adierazle osagarri sorta zabal baten bitartez.

Kalkulu-prozesua tokiko jasangarritasuna hainbat mailatan kudeatzeko kalitatezko eta baliozko informazio eraginkorra lortzera bideratuta dago.



1. Irudia. Toki jasangarritasun adierazleen aplikazioak

Lehenik eta behin, TJASk adierazleen kalkulua egituratzen du, eta emaitzen tokiko erabilera errazten du; tokiko jasangarritasunaren zifra nagusien gardentasuna eta barne- eta kanpo-komunikazioa lortzen eta erabakiak hartzen laguntzen du. Gainera, udalerriei **tak 21** sisteman parte hartzeko aukera ematen die; sistema hori Udalsarea 21eko Tokiko Agenden kalitate orokorra neurtzeko sistema da.

Bestalde, EAEko udalerri guztiek TJAS bera erabiltzeari esker, emaitzak gehitu eta emaitzen udalerriei gaindikoa irakurketa egin daiteke. **EAEko Toki Jasangarritasunaren Behatokia** arduratzen da zeregin horretaz; behatoki horrek toki-mailan sortutako datuak kontzentratu eta prozesatu egiten ditu, **EAEko Toki Jasangarritasunari buruzko Txostenak** egiteko eta udalerriek eta eskualdeek Euskadiko jasangarritasun-politikei egiten dien ekarpena kuantifikatzeko.

Hirugarren maila batean, azpimarratu behar da erreferentziazko beste adierazle-sistema batzuk kontuan hartzen dituela TJASk; horrela, kalkuluak euskal udalerrien emaitzak Europako eta mundu-mailako beste leku batzuetako udalerrien emaitzekin alderatzeko aukera ematen du.

Udalsarea 21en tokiko jasangarritasun adierazleen sistemaren berrikuspenarekin batera, **e-mugi** aplikazioa diseinatu da, kalkulua eta kalkulu horren ondorengo aplikazio ugariak sostengatzen eta errazten duen web formatiko plataforma bat, **TJASren dinamismoa areagotzen duena, etengabe eguneratzea ahalbidetzen baitu.**

02

IKUSPEGIA ETA HELBURUAK

Udalsarea 21en **Toki Jasangarritasunaren 2017ko Adierazle-sistemaren** diseinua zeharkakotasunean, integrazioan, malgutasunean, erabilgarritasunean eta gardentasunean oinarritutako ikuspegi batetik abiatzen da.

Gidalerro batzuek finkatzen dute sistemaren irismena eta beste adierazle-sistema batzuekin ezarri beharreko harremanak. Honako hauek dira gidalerrook:

- Toki jasangarritasunaren alderdien bilakaerari buruzko ikuspegi orokorra eskaintzea.
- Jasangarritasuneko politika publikoen jarraipena erraztea, adierazleak planen helburu, jomuga eta ekintzekin lotuz.
- Erabakiak hartzeko informazio erabilgarria ematea.
- Kontuen gardentasunari eta kontuak emateari lotutako sistema bat definitzea.
- Sistema fidagarria eta beste adierazle-sistema batzuekin koordinatutakoa ezartzea.
- Sistema ezberdinen arteko behetik gorako eta goitik beherako integrazioa kontuan hartzea (toki sistematik udalaz gaundiko sistemara, eta alderantziz).
- Adierazleen denboran zeharreko eta udalerrien arteko alderagarritasuna bermatzea.
- Aldaketekiko sentikorra eta denboran iraunkorra den sistema bat definitzea.
- Adierazle komunikagarriak aukeratzea: bai barne-mailan (kargu politikoak eta teknikariak), bai kanpo-mailan (herritarrak, inplikaturako eragileak, etab.).
- Datuen informazio-iturrien kalitatea bermatzea.

Aldi berean, ondorengo helburuetan oinarrituta planteatu da 2017ko TJAS horren arkitektura:

2017ko TOKIKO JASANGARRITASUN ADIERAZLE-SISTEMAREN HELBURUAK

1. Gobernantza arloko adierazleak txertatu eta berauetan sakondu.
2. Ikuspegi orokorra ematen duten eta kudeaketa espezifikoa errazten duten adierazleen arteko oreka baimendu.
3. Tokiko erakunde guztiek kalkulatu beharreko oinarritzko adierazle multzoa eta behar espezifikoetara egokitzen diren adierazle osagarriak konbinatu. Oinarritzko adierazleak bestelako prozesuetan baliagarriak izango dira (EAEko Jasangarritasun Behatokia, tak21).
4. Existitzen diren beste adierazle sistemekin lerrokatu, kalkulurako metodologiak bateratuz eta baliabideak optimizatuz.
5. Informazio plataforma berriak tokiko erakundearen artean ezagutzera eman.
6. Tokiko jasangarritasunaren inguruko informazioaren bilaketa eta tratamendua elkartu, ekimen sektorialekiko erantzuna erraztuz (Global Covenant of Mayors for Climate and Energy, EJE, eta abar.).
7. Udalaz gaindiko garapen jasangarrirako politikan tokiko ekarpenaren analisia baimendu.
8. Gobernantza arloko adierazleak txertatu eta berauetan sakondu.

Udalsarea 21en 2017ko TJASk erabilgarritasun ezberdinak eskaintzen ditu, eta hartzaile ezberdinei erantzun nahi die, kasu bakoitzaren berriazko ezaugarrien arabera aukeratu, interpretatu eta komunikatu daitekeen informazio komun baten oinarritik abiatuta. Helburu horrekin, informazioa erabiltzeko hiru maila definitzen dira:

1. MAILA Udalerriak eta eskualdeak.

Aplikazioak: jasangarritasun-adierazleak tresna erabilgarria dira Toki Agenda 21 bezalako tokiko jasangarritasun-politikak diseinatzeko, garatzeko eta berrikusteko. Jasangarritasunaren esparru ezberdinetan aldagaiak kuantifikatzeak informazio erabilgarria ematen du ekintzen eta planen diagnostikorako eta diseinurako, eta horien jarraipena ebaluatzeko.

Hartzaileak: barne-esferan, tokiko erakundeetako politikariak eta teknikariak; eta, kanpo-esferan, herritarrak eta inplikaturako eragileak.

2. MAILA Udalsarea 21en EAEko Jasangarritasunaren Behatokia.

Aplikazioak: tokiko adierazleak Behatokian sartzeak baterako tratamendua eta analisisa egiteko aukera ematen du, eta horrek agerian uzten du tokiko politikek jasangarritasunaren udalerriaz gaindiko estrategiei egiten dien ekarpena. Irakurketa hori zeharkakoa, lurraldekoa eta sektorekakoa izan daiteke, esparru zehatzetan sakonduz.

Hartzaileak: kudeaketaren esferan, udalerriaz gaindiko administrazioak eta EAEko beste adierazle-sistema batzuk; eta kanpo-esferan, euskal gizartea oro har, gardentasunaren eta emaitzen komunikazioaren esparruan.

3. MAILA. Estatu eta nazioarte mailako ekimenak.

Aplikazioak: gehitutako Behatokiaren datuek aukera ematen dute, bestalde, euskal udalerriek Estatuko eta nazioarteko jasangarritasun-politikei egiten dieten ekarpena neurtzeko; hala nola Global Covenant of Mayors for Climate and Energy politikari eta, batez ere, Euskal Adierazpenak, europar hiri eta herrietarako bide-orri den aldetik. Bai eta, Europa bizigarri eta inklusibo baterako, udalerri produktibo, jasangarri eta erresilienteak sortzeko bilatzen dituen helburu zehatzei egiten dieten ekarpena neurtzeko aukera ere.

Hartzaileak: Estatuko, Europako eta munduko udalerri-erakundeak, eskualde-gobernuak eta estatuetako gobernuak.

Udalsarea 21en 2017ko TJASk erabilgarritasun ezberdinak eskaintzen ditu, eta hartzaile ezberdinei erantzun nahi die, kasu bakoitzaren berariazko ezaugarrien arabera aukeratu, interpretatu eta komunikatu daitekeen informazio komun baten oinarritik abiatuta. Helburu horrekin, informazioa erabiltzeko hiru maila definitzen dira.

MAILA	Aplikazioak	Eragile hartzaileak
1. Udalerrriak eta eskualdeak	Jasangarritasun-adierazleak tresna erabilgarria dira Toki Agenda 21 bezalako tokiko jasangarritasun-politikak diseinatzeko, garatzeko eta berrikusteko. Jasangarritasunaren esparru ezberdinetan aldagaiak kuantifikatzeak informazio erabilgarria ematen du ekintzen eta planen diagnostikorako eta diseinurako, eta horien jarraipena ebaluatzen.	barne-esferan, tokiko erakundeetako politikariak eta teknikariak; eta, kanpo-esferan, herritarrak eta inplikaturako eragileak.
2. Udalsarea 21en EAEko Jasangarritasunaren Behatokia	tokiko adierazleak Behatokian sartzeak baterako tratamendua eta analisia egiteko aukera ematen du, eta horrek agerian uzten du tokiko politikek jasangarritasunaren udal gaitasunak egiten diren ekarpena. Irakurketa hori zeharkakoa, lurraldekoa eta sektoreakoa izan daiteke, esparru zehatzetan sakonduz.	kudeaketaren esferan, udalerriaz gaitasunak administrazioak eta EAEko beste adierazle-sistema batzuk; eta kanpo-esferan, euskal gizartea oro har, gaitasunaren eta emaitzen komunikazioaren esparruan
3. Estatu eta nazioarte mailako ekimenak	Gehitutako Behatokiaren datuek aukera ematen dute, bestalde, euskal udalerriek Estatu eta nazioarteko jasangarritasun-politikei egiten dieten ekarpena neurtzeko; hala nola Global Covenant of Mayors for Climate and Energy politikari eta, batez ere, Euskal Adierazpenak, europar hiri eta herrietarako bide-orri den aldetik. Bai eta, Europa bizigarri eta inklusibo baterako, udalerri produktibo, jasangarri eta erresilienteak sortzeko bilatzen dituen helburu zehatzei egiten dieten ekarpena neurtzeko aukera ere.	Estatuko, Europako eta munduko udalerri-erakundeak, eskualde-gobernuak eta estatuetako gobernuak

03

PRESTAKETA

Udalsarea 21 Euskadin zein Euskaditik kanpo erreferentziazko udalerri-sare gisa sendo finkatu den testuinguru batean egiten da tokiko jasangarritasun adierazle-sistemaren berrikuspena. Udalerrien arteko topalekuak sortu izanak, elkarrekin baliabide teknikoak sortu izanak, sareko lan-metodologiak eta udalerrien inplikazioak lagundu egin dute Udalsarea 21 sareak eginkizun garrantzitsua joka dezan tokiko erakundeen eta udalerriaz gaindiko beste organismo batzuen arteko harremanetarako espazioak bideratzen.

Hori horrela da jasangarritasun-adierazleen kalkuluaren esparruan ere. Alde batetik, Udalsarea 21ek 10 urtetik gorako ibilbidea duen TJAS dauka, udal eta eskualdeen datuak pilatu dituen, eta Behatokiaren tokiko jasangarritasunaren jarraipen-programatan eta txostenetan islatu dena.

Bestalde, ingurumenaren edo estatistiken esparruetan eskumenak dituzten udalerriaz gaindiko organismoek adierazle-sistemen arteko koherentzia eta sinergiak indartzeko tokiko erakundeekin batera jarduteko interesa dute, egindako ahaleginen eraginkortasuna handitzeko eta norabide bikoitzeko lankidetzarako espazioak ezartzeko helburuz.

Esparru horretan, eragile askok parte hartu du TJAS berriari buruzko hausnarketa-prozesuan.



2 Irudia. Adierazle-sistemaren berrikuspenean parte hartu duten organismoak

04

TOKIKO JASANGARRITASUN ADIERAZLEEN SISTEMA

Jarraian, Udalsarea 21en Tokiko Jasangarritasun Adierazleen sistema erakusten da, eta sistema osatzen duten adierazleetako bakoitzaren deskribapena jasotzen da.

TJAS lau multzotan banatutako 24 gai-esparrutan egituratuta dago: ingurumen-alderdiak, alderdi sozialak, ekonomikoak eta gobernantzari dagozkionak. Antolaketa horrek Euskadin Tokiko Agenda 21 egitasmoek duten zeharkako izaera azpimarratzen du, eta udalerrien egoera ezagutzeko oso era ezberdinetako informazioa neurtzeko eta emateko duten asmoa. Aldi berean, Gida honetan aurkezten diren adierazleen hari eroale gisa balio duen eskema da.

INGURUMEN ARLOAK	GIZARTE ARLOAK	EKONOMIA ARLOAK	GOBERNANTZA ARLOAK
Lurraldea eta antolamendua Bioaniztasuna eta ingurumen naturala Mugikortasuna eta garraioa Lurzoruak Ura Energia Hondakinak Klima aldaketa eta inpaktu orokorra Udalarenak ez diren erakundeen ingurumen kudeaketa	Osasuna Ongizatea eta gizarteratzea Etxebizitza Kultura Euskara Hezkuntza Berdintasuna Demografia	Lan merkatua Garapen ekonomikoa	Udal administrazioaren ingurumen kudeaketa Sentsibilizazioa eta komunikazioa Herritarren parte-hartzea Koordinazioa Gardentasuna

3. Irudia. EAEko Tokiko Agenda 21 egitasmoaren gai-esparruak

3. Irudian zerrendatutako gai-esparru guztiek dituzte esparruok neurtzeko adierazleak, bik izan ezik: berdintasunak eta kulturak. Berdintasunaren adierazleak kuantifikatutako hainbat aldagaiaren sexuaren araberako banaketan daude; kultura, berriz, beste balio batzuen bitartez neurtzen da inplizituki.

Aurrez aipatu bezala, kalkulu komuneko adierazle batzuen ezarpenean oinarritzen den TJAS da -oinarrizko 50 adierazleko sorta- eta, aldi berean, 150 adierazle osagarri eskainita, berariazko gaietan xehetasunetara jotzeko aukera

ematen du. Hortik abiatuta, tokiko erakunde bakoitzari dagokio kudeaketako eta komunikazioko bere beharretara ondoen egokitzen den ibilbidea marraztea.

Adierazle bakoitzak fitxa bat dauka, ondorengo oinarritzko ezaugarriak deskribatzen dituen:

- Izenburua
- Gai-esparrua
- Definizioa
- Unitateak
- Informazio-iturriak
- Kalkulurako metodologia
- Lortu nahi den joera: murriztea/mantentzea/handitzea/aldagarria
- Beste adierazle-sistema batzuekiko harremana
- Tipologia: oinarritzkoa edo osagarria

Gainera, eranskinean laburpen-koadroak erakusten dira; koadro horietan, adierazitako lau multzoetako bakoitzerako adierazle-zerrenda jasotzen da, sistemaren kontsulta globala errazte aldera.



INGURUMEN ARLOAK

Ingurumen arloak bederatzi gai-eremu batzen dituzte, zeintzuek lurralde arloa eta ingurumen bektoreak barneratzen dituzten. Lurralde eta antolamenduaren analisiak bioaniztasuna eta ingurumen naturalari bidea ematen dio, baita mugikortasun eta garraioaren atal zabalari ere.

Jarraian lurzoruen ingurumen kalitatea aztertzen da eta ura eta energia baliabideen erabilera kuantifikatzen da eta hondakin fluxuen sorrera eta kudeaketa.

Esparru honetan, berotegi efektuko gasen inbentarioen emaitzak txertatzen dira eta udalarenak ez diren erakundeen ingurumen kudeaketaren ebaluaketa egiten da.

01_01 Lurzoru artifizializatua

Definizioa

Lurzoru artifizializatuaren portzentajea, udalerriaren azalera osoarekiko.

Lurzoru artifizializatua da naturala izateari utzi dion lurzoru guztia. Beraz, hor sartzen dira bizitegi-, industria-, ekipamendu- eta zerbitzu-erabilerako lurzoru urbanizatuak; bide-, ingurumen- eta energia-azpiegiturak eta bestelakoan; bai eta harrobiak eta meatzeak ere.

Udalplanen lurzoruari buruzko informazioaren arabera, lurzoru artifizializatutzat jotzen dira honako kategoria hauek guztiak: bizitegi-lurzoru hiritarra (finkatua zein finkatugabea); jarduera ekonomikoetara bideratutako lurzoru hiritarra (finkatua zein finkatugabea); sistema orokorrak (ibai-ibilguak izan ezik); eta, lurzoru urbanizaezinaren barruan, erauzketa-jarduerak eta landa-inguruneke nukleoak.

Unitatea	%
Informazio iturria	Udalplan
Kalkulu metodoa	(Lurzoru artifizializatuaren azalera/ Udalerriaren azalera osoa)*100
Nahi den joera	Mantentzea
Beste sistemekiko lerrokatzea	Udalplan EJ-ILPES-Ingurumen profila
Mota	Oinarritzkoa



**Lurraldea eta
antolamendua**

01_02 Lurzoruaren erabileraren intentsitatea

Lurraldea eta antolamendua

Definizioa

Biztanle kopurua lurzoru artifiziализatuaren azalerarekiko.

Unitatea	biztanleak/ha lurzoru artifiziализatua
Informazio iturria	Udalplan Udala, hirigintza saila Udala, errolda
Kalkulu metodoa	Udalerriko biztanle kopuru osoa/ Lurzoru artifiziализatuaren azalera
Nahi den joera	Aldakorra
Beste sistemekiko lerrokatzea	--
Mota	Osagarria

01_03 Bizitegi-lurzoruaren erabileraren intentsitatea

Lurraldea eta antolamendua

Definizioa

Bizitegi-lurzoru hiritarreko biztanle kopurua bizitegi-lurzoru hiritarraren azalerarekiko.

Bizitegi-lurzoruko biztanleria da biztanleria osoa ken barreiatuta bizi den biztanleria kopurua (bizitegi-lurzoru gisa sailkatuta ez dagoen lurzoru, hala nola baserriak eta landa-inguruneak nukleo txikiak). Bizitegi-lurzorua ez den guneei buruzko informazioaren kalkulua erroldako datuetan oinarrituta eskura daiteke normalean. Erroldak ez badu aukerarik ematen barreiatutako biztanleria eta gainerakoa bereizteko eta, gainera, usteko balitz ez dela esanguratsua (% 5etik beherakoa, gutxi gorabehera), biztanleria osoa eta bizitegi-lurzoruko biztanleria parekatu ahal izango litzateke, adierazlearen azken emaitzari modu esanguratsuan eragin gabe.

Unitatea	biztanleak/ha bizitegi-lurzorua
Informazio iturria	Udalplan Udala, hirigintza saila Udala, errolda
Kalkulu metodoa	Biztanle kopurua bizitegi-lurzoru hiritarrean/ Bizitegi-lurzoru hiritarraren azalera
Nahi den joera	Aldakorra
Beste sistemekiko lerrokatzea	--
Mota	Oinarritzkoa

Definizioa

Parke, lorategi eta berdeguneek udalerrian hartzen duten azalera biztanle bakoitzeko.

Parke, lorategi eta berdeguneek hartutako azaleratzat jotzen dira nekazaritzakoak ez diren natura artifizialeko lurzoruak; hala nola:

- Hiri-parkeak, lorategiak, lorategi-plazak, berdeguneak edo oinezko eta txirrindularientzako espazio libreak (oinezkoentzako babesguneak edo trafikoko banatze-gune berdeak izan ezik).
- Aire zabaleko kirol- edo jolas-instalazioak, jende guztiak erabiltzekoak eta doakoak.
- Herritarrek eskura dituzten doaneko parke pribatuak.

Dagokion datan indarrean dagoen udalerriko hirigintzako plangintzan hiri-lurzoru gisa sailkatutako lurzoruaren barruan hiri-parkeek, -lorategiek eta -berdeguneek okupatutako azalera.

Unitatea	m ² /biztanleak
Informazio iturria	Udala, errolda
Kalkulu metodoa	Hiriguneko parke, lorategi eta berdeguneek hartzen duten azalera/ Udalerriko biztanle kopuru osoa
Nahi den joera	Aldakorra
Beste sistemekiko lerrokatzea	Udalmap ISO 37120:2015
Mota	Osagarria



02_01 Babes bereziko azalera, udalerraren azalera osoarekiko

Definizioa

Babes maila bereziarekin babestutako azalera portzentajea, udalerraren azalera guztiarekiko.

Udalplanen jasotako babes bereziko azalera hartuko da kontuan.

Unitatea	%
Informazio iturria	Udalplan
Kalkulu metodoa	$(\text{Babes bereziko azalera} / \text{Udalerraren azalera osoa}) \times 100$
Nahi den joera	Gehitzea
Beste sistemekiko lerrokatzea	Udalmap
Mota	Oinarrizkoa

02_02 Udal inbertsioa ekologia leheneratzeko proiektuetan

Bioaniztasuna eta ingurumen naturala

Definizioa

Udal aurrekontuan edo beste administrazio batzuen laguntzarekin, ekologia leheneratzearekin lotutako partiden batura, biztanle bakoitzeko.

Ekologia leheneratzea da degradatuta dauden inguruak birgaitzea eta jatorrizko baldintza naturaletara itzultzea eta, hori ezinezkoa baldin bada, kaltetutako habitataren antzerako beste batzuk sortzea, eragindako kalteak modu onargarrian konpentsatzeko.

Adierazle hori kalkulatzeko, egikaritutako ekintzak hartzen dira kontuan; esate baterako:

- Komunitatearentzat eta eskualdearentzat interesekoak diren habitat naturalak kontserbatzeko egiten diren leheneratze-, hobetze- edo kudeatze-ekintzak.
- Maila komunitarioan edo eskualdekoan babestutako basa flora eta fauna espezieak babesteko eta kontserbatzeko proiektuak.
- Faunarentzako urmaelak eta hezeguneak sortu eta leheneratzea.
- Bertako ekosistemen osotasunerako mehatxu diren flora exotiko inbaditzaileko espezieak desagerraraztea.
- Lurraldearen lotura ekologikoa hobetzen lagunduko duten jarduketak.

Unitatea	€/biztanleak
Informazio iturria	Udala, errolda
Kalkulu metodoa	Ekologia leheneratzearekin lotutako partidak, udal aurrekontuan egikaritutakoak/ Udalerriko biztanle kopuru osoa
Nahi den joera	Gehitzea
Beste sistemekiko lerrokatzea	MAPAMA
Mota	Osagarria

02_03 Nekazaritzako ustiategi ekologikoak

Bioaniztasuna eta ingurumen naturala

Definizioa

Nekazaritzako ustiategi ekologiko kopurua.

Kontuan hartuko dira, nekazaritza ekologikoko irizpideak betez, aletarako zereal, bazka eta proteaginoso, fruitu lehor, aletarako lekale, jateko patata, ereiteko patata, landare aromatiko, sendabelar edota kosmetiko, labore industrial, frutikultura, baratzezaintza (aire zabalean zein negutegian), olibazaintza, beste landare-laborantza, hazi eta landareen ekoizpen eta mahastizaintzara bideratutako ustiategiak.

Unitatea	Ustiategi kopurua
Informazio iturria	Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua (ENEEK)
Kalkulu metodoa	Nekazaritzako ustiategi ekologiko kopuru osoa
Nahi den joera	Gehitzea
Beste sistemekiko lerrokatzea	--
Mota	Osagarria

02_04 Nekazaritzako azalera ekologikoa

Bioaniztasuna eta ingurumen naturala

Definizioa

Laborantza ekologikoetara bideratutako nekazaritzako azalera.

Kontuan hartuko da, nekazaritza ekologikoko irizpideak betez, aletarako zereal, bazka eta proteaginoso, fruitu lehor, aletarako lekale, jateko patata, ereiteko patata, landare aromatiko, sendabelar edota kosmetiko, labore industrial, frutikultura, baratzezaintza (aire zabalean zein negutegian), olibazaintza, beste landare-laborantza, hazi eta landareen ekoizpen eta mahastizaintzara bideratutako azalera.

Unitatea	ha
Informazio iturria	Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua (ENEEK)
Kalkulu metodoa	Laborantza ekologikoetara bideratutako nekazaritzako azalera osoa
Nahi den joera	Gehitzea
Beste sistemekiko lerrokatzea	BFA MAPAMA
Mota	Osagarria

02_05 Abeltzaintza ekologikoko ustategiak

Bioaniztasuna eta ingurumen naturala

Definizioa

Abeltzaintza ekologikoko ustategi kopurua.

Kontuan hartuko dira lurreko etxe-abereak edo etxekotutako abereak ekoizteko ustategiak, 834/2007 Erregelamenduan (EE) ezarritako arauak betetzen dituzten ekoizpen-metodoak erabiltzen dituztenak ekoizpenaren, prestakuntzaren eta banaketaren etapa guztietan.

Unitatea	Ustategi kopurua
Informazio iturria	Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua (ENEEK)
Kalkulu metodoa	Abeltzaintza ekologikoko ustategi kopuru osoa
Nahi den joera	Gehitzea
Beste sistemekiko lerrokatzea	BFA MAPAMA
Mota	Osagarria

02_06 Abeltzaintzako azalera ekologikoa

Bioaniztasuna eta ingurumen naturala

Definizioa

Abeltzaintza ekologikora bideratutako azalera.

Abeltzaintzako azaleratzat joko da larre eta/edo belardi aprobetxamenduko azalera.

Unitatea	ha
Informazio iturria	Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua (ENEEK)
Kalkulu metodoa	Abeltzaintza ekologikora bideratutako azalera osoa
Nahi den joera	Gehitzea
Beste sistemekiko lerrokatzea	--
Mota	Osagarria



03_01 Bidegorrien edo bizikleta-bideen sarea

Definizioa

Udalerrian berariaz bizikleten zirkulaziorako diren hiri barruko zein hiriarteko bideen luzera.

Bidegorritzat edo bizikletentzako bidetzat joko da bizikleten zirkulaziorako eraikitako edo berariaz egokitutako jabari publikoko bidea, dagokion seinale horizontal eta bertikalak dituen, eta ibilgailu hauek segurtasunez igarotzea ahalbidetzen duena: motordun ibilgailuetatik banandutako bizikletentzako eta oinezkoentzako bideak; galtzada okupatuta, motordun ibilgailuen zirkulaziotik bereizita dagoena bideko marken, mutiloi edo bereizteko beste elementuren baten bitartez; galtzadaren zati bat okupatuta, bereizita baina banandu gabe, bai eta bizikidetzako zatiak.

Bi noranzkoak dituzten bidegorrien luzera behin bakarrik kontatuko da.

Unitatea	km/ 10.000 biz
Informazio iturria	Udala, hirigintza saila Udala, errolda
Kalkulu metodoa	(Bidegorrien luzera/Udalerriko biztanle kopuru osoa)*10000
Nahi den joera	Gehitzea
Beste sistemekiko lerrokatzea	--
Mota	Oinarrizkoa

03_02 Hiri-autobusa erabiltzen duen bidaiari kopurua

Mugikortasuna eta garraioa

Definizioa

Hiri-autobusa erabiltzen duen bidaiari kopurua.

Unitatea	bidaiari kopurua
Informazio iturria	Udala, hiri garraioa kudeatzen duen konpainia
Kalkulu metodoa	Hiri-autobusa erabiltzen duen bidaiari kopurua
Nahi den joera	Gehitzea
Beste sistemekiko lerrokatzea	--
Mota	Osagarria

03_03 Gainazaleko eta lurrazpiko aparkalekuak, dagoen ibilgailu kopuruarekiko

Mugikortasuna eta garraioa

Definizioa

Udalerrian dagoen aparkaleku kopurua, udalerrian dagoen guztizko auto kopuruarekiko. Kontuan hartuko dira gainazaleko eta lurrazpiko aparkaleku publikoak, araututakoak (TAO, etab.) zein arautu gabeak.

Unitatea	aparkaleku plaza kopurua/ibilgailu kopurua
Informazio iturria	Udala, hirigintza saila
Kalkulu metodoa	Udalerrian dagoen aparkaleku kopurua/Ibilgailu-parkea
Nahi den joera	Aldakorra
Beste sistemekiko lerrokatzea	--
Mota	Osagarria

03_04 Ibilgailu-parkea

Mugikortasuna eta garraioa

Definizioa

Udalerrian matrikulatutako motordun ibilgailu kopurua, 1.000 biztanle bakoitzeko.

Unitatea	ibilgailu kopurua/1.000 biz
Informazio iturria	Trafikoko Zuzendaritza Orokorra (DGT) Udala, errolda
Kalkulu metodoa	(Udalerrian matrikulatutako motordun ibilgailuak/ Udalerriko biztanle kopuru osoa)*1000
Nahi den joera	Gutxitzea
Beste sistemekiko lerrokatzea	Udalmap
Mota	Osagarria

03_05 Automobil-parkea

Mugikortasuna eta garraioa

Definizioa

Udalerrian matrikulatutako auto kopurua, 1.000 biztanle bakoitzeko.

Auto edo turismotzat jotzen dira bidaiariak garraiatzera bideratutako lau gurpildun ibilgailuak, gidaria barne bederatzi bidaiari baino gutxiagorentzat edukiera dutenak.

Unitatea	turismo kopurua/1.000 biz
Informazio iturria	Trafikoko Zuzendaritza Orokorra (DGT) Udala, errolda
Kalkulu metodoa	(Udalerrian matrikulatutako autoak edo turismoak/Udalerriko biztanle kopuru osoa)*1000
Nahi den joera	Gutxitzea
Beste sistemekiko lerrokatzea	Udalmap ISO 37120:2015
Mota	Oinarrizkoa

03_06 Motozikleta-parkea

Mugikortasuna eta garraioa

Definizioa

Udalerrian matrikulatutako motozikleta kopurua, 1.000 biztanle bakoitzeko.

Unitatea	motozikleta kopurua/ 1.000 biz
Informazio iturria	Trafikoko Zuzendaritza Orokorra (DGT) Udala, errolda
Kalkulu metodoa	(Udalerrian matrikulatutako motozikletak/Udalerriko biztanle kopuru osoa)*1000
Nahi den joera	Aldakorra
Beste sistemekiko lerrokatzea	ISO 37120:2015
Mota	Osagarria

03_07 Ziklomotor-parkea

Mugikortasuna eta garraioa

Definizioa

Udalerrian matrikulatutako ziklomotor kopurua, 1.000 biztanle bakoitzeko.

Unitatea	ziklomotore kopurua/ 1.000 biz
Informazio iturria	Trafikoko Zuzendaritza Orokorra (DGT) Udala, errolda
Kalkulu metodoa	(Udalerrian matrikulatutako ziklomotoreak/Udalerriko biztanle kopuru osoa)*1000
Nahi den joera	Aldakorra
Beste sistemekiko lerrokatzea	--
Mota	Osagarria

03_08 Furgoneta-parkea

Mugikortasuna eta garraioa

Definizioa

Udalerrian matrikulatutako furgoneta kopurua, 1.000 biztanle bakoitzeko.

Unitatea	furgoneta kopurua/ 1.000 biz
Informazio iturria	Trafikoko Zuzendaritza Orokorra (DGT) Udala, errolda
Kalkulu metodoa	(Udalerrian matrikulatutako furgonetako/ Udalerriko biztanle kopuru osoa)*1000
Nahi den joera	Aldakorra
Beste sistemekiko lerrokatzea	--
Mota	Osagarria

03_09 3.500 kg arteko kamioien parkea

Mugikortasuna eta garraioa

Definizioa

Udalerrian matrikulatutako 3.500 kg arteko kamioi kopurua, 1.000 biztanle bakoitzeko.

Unitatea	kamioi kopurua/ 1.000 biz
Informazio iturria	Trafikoko Zuzendaritza Orokorra (DGT) Udala, errolda
Kalkulu metodoa	(3.500 kg arteko udalerrian matrikulatutako kamioiak/ Udalerriko biztanle kopuru osoa)*1000
Nahi den joera	Aldakorra
Beste sistemekiko lerrokatzea	--
Mota	Osagarria

03_10 3.500 kg-tik gorako kamioien parkea

Mugikortasuna eta garraioa

Definizioa

Udalerrian matrikulatutako 3.500 kg-tik gorako kamioi kopurua, 1.000 biztanle bakoitzeko.

Unitatea	kamioi kopurua/ 1.000 biz
Informazio iturria	Trafikoko Zuzendaritza Orokorra (DGT) Udala, errolda
Kalkulu metodoa	(3.500 kg-tik gorako udalerrian matrikulatutako kamioiak/ Udalerriko biztanle kopuru osoa)*1000
Nahi den joera	Aldakorra
Beste sistemekiko lerrokatzea	--
Mota	Osagarria

03_11 Autobus-parkea

Mugikortasuna eta garraioa

Definizioa

Udalerrian matrikulatutako autobus kopurua, 1.000 biztanle bakoitzeko.

Unitatea	autobus kopurua/ 1.000 biz
Informazio iturria	Trafikoko Zuzendaritza Orokorra (DGT) Udala, errolda
Kalkulu metodoa	(Udalerrian matrikulatutako autobusak/Udalerriko biztanle kopuru osoa)*1000
Nahi den joera	Aldakorra
Beste sistemekiko lerrokatzea	--
Mota	Osagarria

03_12 Ibilgailu elektrikoen parkea

Mugikortasuna eta garraioa

Definizioa

Udalerrian matrikulatutako ibilgailu elektrikoen kopurua, 1.000 biztanle bakoitzeko.

Unitatea	ibilgailu elektriko kopurua/ 1.000 biz
Informazio iturria	Trafikoko Zuzendaritza Orokorra (DGT) Udala, errolda
Kalkulu metodoa	(Udalerrian matrikulatutako ibilgailu elektrikoako/ Udalerriko biztanle kopuru osoa)*1000
Nahi den joera	Gehitzea
Beste sistemekiko lerrokatzea	--
Mota	Osagarria

03_13 Ibilgailu elektrikoak kargatzeko gune kopurua

Mugikortasuna eta garraioa

Definizioa

Udalerrian ibilgailu elektrikoak kargatzeko dagoen erabilera publikoko gune kopurua, 1.000 biztanle bakoitzeko.

Unitatea	kargatzeko puntu kopurua/1.000 hab
Informazio iturria	EEE
Kalkulu metodoa	(Udalerrian ibilgailu elektrikoak kargatzeko dauden puntuak/ Udalerriko biztanle kopuru osoa)*1000
Nahi den joera	Gehitzea
Beste sistemekiko lerrokatzea	--
Mota	Osagarria

03_14 Eskola-bide seguruak dituzten eskola kopurua

Mugikortasuna eta garraioa

Definizioa

Eskolarako ibilbide edo eskola-bide seguruak dituzten eskolen (publikoak, itunduak eta pribatuak) portzentajea.

Ikastetxe batek eskola-bide segurua duela joko da, ikasleek ikastetxera oinez edo bizikletaz/patinetez egunero segurtasunez (pertsona heldu batek lagunduta edo bakarrik) iristeko ibilbide-sarea baldin badute.

Unitatea	%
Informazio iturria	Udala
Kalkulu metodoa	(Eskola-bideen ibilbide edo eskola-bide seguruak dituzten ikastetxe kopurua/Udalerriko ikastetxe kopurua)*100
Nahi den joera	Gehitzea
Beste sistemekiko lerrokatzea	--
Mota	Osagarria

03_15 Oinezkoen erabilerarako azalera

Mugikortasuna eta garraioa

Definizioa

Oinezkoen erabilerarako azaleraren portzentajea. Oinezkoen erabilerarako joko dira oinezkoek bakarrik erabiltzekoak diren kaleak, bai eta partekatutakoak ere, baldin eta lehentasuna oinezkoek badute -alderantzizko lehentasuna-.

Ez dira oinezkoentzako azaleratzat joko 30eko eremu gisa markatutakoak edo abiadura txikiagokoak.

Unitatea	%
Informazio iturria	Udala
Kalkulu metodoa	(Oinezkoen erabilerarako azalera/ Udalerriaren azalera osoa)*100
Nahi den joera	Gehitzea
Beste sistemekiko lerrokatzea	--
Mota	Oinarrizkoa

03_16 30eko eremuen azalera

Mugikortasuna eta garraioa

Definizioa

30eko eremu gisa markatutako edo abiadura txikiagoko azaleraren portzentajea. 30eko edo abiadura txikiagoko eremutzat joko dira motordun ibilgailuentzako abiadura orduko 30 kilometrora edo txikiagora mugatuta duten eremuak.

Unitatea	%
Informazio iturria	Udala
Kalkulu metodoa	(30eko edo abiadura txikiagoko eremuen azalera/ Udalerriaren azalera osoa)*100
Nahi den joera	Gehitzea
Beste sistemekiko lerrokatzea	--
Mota	Osagarria

03_17

Joan-etorrien arrazoia eta erregularitasuna astean zehar: bidaia sistematikoak

Mugikortasuna eta garraioa

Definizioa

Bidaia sistematikoen portzentajea.

Bidaia sistematikotzat joko dira lan eta ikasketa arrazoiengatik, eta erosketetarako egiten direnak.

Unitatea	%
Informazio iturria	OTEUS (Euskadiko Garraio Behatokia)
Kalkulu metodoa	Bidaia sistematikoen portzentajea
Nahi den joera	Aldakorra
Beste sistemekiko lerrokatzea	EAEko mugikortasun azterketa
Mota	Osagarria

03_18

Joan-etorrien arrazoia eta erregularitasuna astean zehar: sistematikoak ez diren bidaiak

Mugikortasuna eta garraioa

Definizioa

Sistematikoak ez diren bidaien portzentajea.

Bidaia ez-sistematikotzat joko dira aisia, familia kontuak, kontu pertsonalak eta beste batzuk tarteko egiten direnak.

Unitatea	%
Informazio iturria	OTEUS (Euskadiko Garraio Behatokia)
Kalkulu metodoa	Sistematikoak ez diren bidaien portzentajea
Nahi den joera	Aldakorra
Beste sistemekiko lerrokatzea	EAEko mugikortasun azterketa
Mota	Osagarria

03_19 Garraiatzeko moduak: oinez

Mugikortasuna eta garraioa

Definizioa

Oinez egindako joan-etorrien portzentaje erlatiboa.

Unitatea	%
Informazio iturria	OTEUS (Euskadiko Garraio Behatokia)
Kalkulu metodoa	Oinez egindako joan-etorrien portzentajea
Nahi den joera	Gehitzea
Beste sistemekiko lerrokatzea	EAEko mugikortasun azterketa
Mota	Osagarria

03_20 Garraiatzeko moduak: bizikletaz

Mugikortasuna eta garraioa

Definizioa

Bizikletaz egindako joan-etorrien portzentaje erlatiboa.

Unitatea	%
Informazio iturria	OTEUS (Euskadiko Garraio Behatokia)
Kalkulu metodoa	Bizikletaz egindako joan-etorrien portzentajea
Nahi den joera	Gehitzea
Beste sistemekiko lerrokatzea	EAEko mugikortasun azterketa
Mota	Osagarria

03_21 Garraiatzeko moduak: automobileraz

Mugikortasuna eta garraioa

Definizioa

Automobileraz egindako joan-etorrien portzentaje erlatiboa.

Unitatea	%
Informazio iturria	OTEUS (Euskadiko Garraio Behatokia)
Kalkulu metodoa	Automobileraz egindako joan-etorrien portzentajea
Nahi den joera	Gutxitzea
Beste sistemekiko lerrokatzea	Euskadi 2020rako Mugikortasun Iraunkorraren Plan Zuzentzailearekin lerrokatua
Mota	Osagarria

03_22 Garraiatzeko moduak: autobusez

Mugikortasuna eta garraioa

Definizioa

Autobusez egindako joan-etorrien portzentaje erlatiboa.

Unitatea	%
Informazio iturria	OTEUS (Euskadiko Garraio Behatokia)
Kalkulu metodoa	Autobusez egindako joan-etorrien portzentajea
Nahi den joera	Gehitzea
Beste sistemekiko lerrokatzea	Euskadi 2020rako Mugikortasun Iraunkorraren Plan Zuzentzailearekin lerrokatua
Mota	Osagarria

03_23 Garraiatzeko moduak: trenez edo metroz

Mugikortasuna eta garraioa

Definizioa

Trenez edo metroz egindako joan-etorrien portzentaje erlatiboa.

Unitatea	%
Informazio iturria	OTEUS (Euskadiko Garraio Behatokia)
Kalkulu metodoa	Trenez edo metroz egindako joan-etorrien portzentajea
Nahi den joera	Gehitzea
Beste sistemekiko lerrokatzea	Euskadi 2020rako Mugikortasun Iraunkorraren Plan Zuzentzailearekin lerrokatua
Mota	Osagarria

03_24 Garraiatzeko moduak: modu konbinatuan / multimodalean

Mugikortasuna eta garraioa

Definizioa

Modu konbinatuan / multimodalean egindako joan-etorrien portzentaje erlatiboa.

Unitatea	%
Informazio iturria	OTEUS (Euskadiko Garraio Behatokia)
Kalkulu metodoa	Modu konbinatuan / multimodalean egindako joan-etorrien portzentajea
Nahi den joera	Gehitzea
Beste sistemekiko lerrokatzea	EAEko mugikortasun azterketa
Mota	Osagarria



04_01 Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak

Definizioa

Lurzorua kutsatu dezaketen jarduera edo instalazioak dituzten lurzoruen azalera (Eusko Jaurlaritzaren 4/2015 Legearen arabera), udalerriko azalera erabilgarri osoarekiko.

Unitatea	%
Kalkulu metodoa	lhobe. Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioa Udalerriko azalera erabilgarriaren datua, Udalplan
Metodología de cálculo	(Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten lurzoruen azalera/ Udalerriaren azalera erabilgarria)*100
Nahi den joera	Gutxitzea
Beste sistemekiko lerrokatzea	Eusko Jaurlaritza, ILPES-Ingurumen profila Udalmap
Mota	Oinarrizkoa

04_02 Lurzoruaren kalitatearen adierazpena duten eta kutsatuta egin daitezkeen lurzoruen espediente kopurua

Lurzoruak

Definizioa

Lurzoruaren Kalitatearen Adierazpena duten eta lurzorua kutsa dezaketen jardueren edo instalazioen espediente kopuru osoa.

Unitatea	espediente kopurua
Informazio iturria	lhobe, Lurzoruaren kalitatearen Erregistro Administratiboa
Kalkulu metodoa	Lurzoruaren Kalitatearen Adierazpena duten eta lurzorua kutsa dezaketen jardueren edo instalazioen espediente kopuru osoa
Nahi den joera	Gehitzea
Beste sistemekiko lerrokatzea	--
Mota	Osagarria

04_03 Lurzoruaren kalitatearen adierazpena duten eta kutsatuta egin daitezkeen lurzoruen azalera

Lurzoruak

Definizioa

Lurzoruaren Kalitatearen Adierazpena duten eta lurzoru kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituen azalera osoa.

Hor sartzen dira eraldatutako lurzoru, eraldatu gabeko lurzoru eta lurzoru kutsatu adierazpenaren tramitea amaituta duten lurzoruak.

Unitatea	m ²
Informazio iturria	Ihobe, Lurzoruaren kalitatearen Erregistro Administratiboa
Kalkulu metodoa	Lurzoruaren Kalitatearen Adierazpena duten eta lurzoru kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituen azalera osoa
Nahi den joera	Gehitzea
Beste sistemekiko lerrokatzea	--
Mota	Osagarria

04_04 Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen berreskurapena

Lurzoruak

Definizioa

Lurzorua hondeatuta eta/edo berreskuratuta, etorkizuneko erabileretarako berreskuratu diren kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen azalera.

Unitatea	m ²
Informazio iturria	Ihobe. Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioa
Kalkulu metodoa	Lurzorua hondeatuta eta/edo berreskuratuta, etorkizuneko erabileretarako berreskuratu diren kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen azalera
Nahi den joera	Gehitzea
Beste sistemekiko lerrokatzea	Eusko Jaurlaritza, ILPES-Ingurumen profila
Mota	Osagarria

05_01 Etxeko ur kontsumoa, biztanle eta egun bakoitzeko



Definizioa

Etxeko sareko ur kontsumoa per capita (hornikuntza bakan)..

Unitatea	litro/biz/egun
Informazio iturria	Udalerriko ur hornidurarako zerbitzuaren tokiko operadoreak : Udala, EskualdeaK, Kontsorzioak, Mankomunitateak eta besterik. Biztanleriaren datua, Udaleko errolda (ebaluatutako urteko urtarilaren 1a)
Kalkulu metodoa	(Etxeko erabilerarako sareko uraren kontsumoa*1000/Udalerriko biztanle kopuru osoa)/365
Nahi den joera	Gutxitzea
Beste sistemekiko lerrokatzea	BFA ISO 37120:2015
Mota	Oinarrizkoa

05_02 Ur kontsumo osoa, biztanle eta egun bakoitzeko

Ura

Definizioa

Ur kontsumo osoa per capita (hornikuntza bakan).

Unitatea	litro/biz/egun
Informazio iturria	Udalerriko ur hornidurarako zerbitzuaren tokiko operadoreak : Udala, EskualdeaK, Kontsorzioak, Mankomunitateak eta besterik. Biztanleriaren datua, Udaleko errolda (ebaluatutako urteko urtarilaren 1a)
Kalkulu metodoa	(Behe-sareko uraren kontsumo osoa*1000/PUdalerriko biztanle kopuru osoa)/365
Nahi den joera	Gutxitzea
Beste sistemekiko lerrokatzea	Udalmap ISO 37120:2015
Mota	Osagarria

05_03 Udalerriko ur eskari osoa (sareko ur hornikuntza altan)

Ura

Definizioa

Udalerriko sareko ur eskari osoa (hornikuntza altan)

Unitatea	m ³
Informazio iturria	Udalerriko ur hornidurarako zerbitzuaren tokiko operadoreak : Udala, EskualdeaK, Kontsorzioak, Mankomunitateak eta besterik.
Kalkulu metodoa	Udalerriko ur eskari osoa
Nahi den joera	Gutxitzea
Beste sistemekiko lerrokatzea	--
Mota	Oinarrizkoa

05_04 Etxeko ur kontsumoa

Ura

Definizioa

Etxeko sektoreko sareko ur kontsumoaren portzentajea (hornikuntza baxan)

Unitatea	%
Informazio iturria	Udalerriko ur hornidurarako zerbitzuaren tokiko operadoreak : Udala, EskualdeaK, Kontsorzioak, Mankomunitateak eta besterik.
Kalkulu metodoa	(Etxeko erabilerarako sareko uraren kontsumoa/Behe-sareko uraren kontsumo osoa)*100
Nahi den joera	Aldakorra
Beste sistemekiko lerrokatzea	--
Mota	Osagarria

05_05 Etxekoa ez den ur kontsumoa

Ura

Definizioa

Etxekoak ez diren sektoreen sareko ur kontsumoaren portzentajea (hornikuntza bajaran). Hor sartzen dira zerbitzuen sektorea, industria sektorea, udal administrazioa, etxekoak ez diren beste kontsumo batzuk.

Unitatea	%
Informazio iturria	Udalerriko ur hornidurarako zerbitzuaren tokiko operadoreak : Udala, EskualdeaK, Kontsorzioak, Mankomunitateak eta besterik.
Kalkulu metodoa	(Etxekoa ez den ur kontsumoa/Behe-sareko uraren kontsumo osoa)*100
Nahi den joera	Aldakorra
Beste sistemekiko lerrokatzea	--
Mota	Osagarria

05_06 Udal administrazioaren sareko ur kontsumoa

Ura

Definizioa

Udal administrazioaren sareko ur kontsumoa (udal eraikinak, ureztatzeak, iturriak, zoruen garbiketa, etab.).

Unitatea	m ³
Informazio iturria	Udalerriko ur hornidurarako zerbitzuaren tokiko operadoreak : Udala, EskualdeaK, Kontsorzioak, Mankomunitateak eta besterik.
Kalkulu metodoa	Udal administrazioaren sareko ur kontsumoa
Nahi den joera	Aldakorra
Beste sistemekiko lerrokatzea	--
Mota	Osagarria

05_07

Sarekoa ez den uraren udal administrazioaren kontsumoa
(berrerabilpena, euri-uren aprobetxamendua, ur-bilketa propioak, etab.)

Ura

Definizioa

Udal administrazioak ureztapenatarako, zoruak garbitzeko, garbiketa-lanatarako eta beste egiten duen sarekoa ez den uraren kontsumoa.

Sarekoa ez den ura da edateko uraren bajako banaketa-sarekoa ez dena. Ur horien jatorria askotarikoa izan daiteke: araztutako uren berrerabilpena, igerilekuetako uraren berrerabilpena, euri-uren aprobetxamendua, ur-bilketa propioak, etab.

Unitatea	m ³
Informazio iturria	Udala
Kalkulu metodoa	Sarekoa ez den uraren udal administrazioaren kontsumoa
Nahi den joera	Aldakorra
Beste sistemekiko lerrokatzea	--
Mota	Osagarria

05_08

Kontrolik gabeko ur kontsumoak (bajako sareko galerak eta fakturatu gabeko ura)

Ura

Definizioa

Altan banatutako uraren bolumenaren eta bajako banaketan kontabilizatutako uraren bolumenaren arteko aldea, altan banatutako ur kopuru osoarekiko. Alde horretan sartzen dira instalazioetako ihesbideetan benetan galdutako ura eta neurgailuek kontsumitzen dena baino gutxiago kontatzeagatik fakturatu gabe geratutako ura, neurtu gabeko ura eta kontrolatu gabeko ura eta iruzur egindakoa.

Unitatea	%
Informazio iturria	Udalerriko ur hornidurarako zerbitzuaren tokiko operadoreak : Udala, EskualdeaK, Kontsorzioak, Mankomunitateak eta besterik.
Kalkulu metodoa	Udalerriko ur eskari osoa altan - Sareko ur kontsumo totala behe sarean
Nahi den joera	Gutxitzea
Beste sistemekiko lerrokatzea	ISO 37120:2015
Mota	Oinarrizkoa

05_09 Kontsumorako uraren osasun arloko kalifikazioa

Ura

Definizioa

Kontsumorako uraren osasun arloko kalifikazioa.

Bi kategoria hartzen dira kontuan: (1) Udalerriaren % 100 hornitzen da egokitzen kalifikatutako urez; (2) Udalerriko eremu bat edo gehiago hornitzen dira onargarri edo desegoki gisa kalifikatutako urez.

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Publikoko Zuzendaritzak emandako kalifikazioa. Hiru mailaren arabera neurtzen du kontsumorako uraren kalitatea:

- Egokia: Edateko egokitzen kalifikatutako ura, gutxienez egindako analisien % 95ean.
- Onargarria: Edateko desegokitzen kalifikatutako ura, gutxienez egindako analisien % 5 eta % 10 artean.
- Desegokia: Edateko desegokitzen kalifikatutako ura, analisien % 10 baino gehiagotan.
- Zehaztu gabea: kalifikazio hori ematen zaie neurketarik egin ez den udalerrii.

Unitatea

Informazio iturria	Eusko Jaurlaritza, Osasun saila. EAE-ko Kontsumo Uren Informazio Sistema
Kalkulu metodoa	Kontsumorako uraren osasun arloko kalifikazioa
Nahi den joera	Lortu eta kalifikazio baikorra mantentzea
Beste sistemekiko lerrokatzea	Udalmap
Mota	Osagarria

05_10 Ibaien kalitatea: egoera ekologikoa. 1. Estazioa

Ura

Definizioa

Ur-masa baten egoera ekologikoa da bere egoera naturalarekiko duen eraldaketa-maila. Egituraren kalitatearen eta gainazaleko urei lotutako ur-ekosistemen funtzionamenduaren adierazlea da, betiere erreferentziazko baldintzekin alderaketa eginda; kalitatearen adierazle biologiko, hidromorfologiko eta fisiko-kimiko sorta bat hartzen da oinarri hori lortzeko.

Uraren Esparru Zuzentzarauak bost egoera ekologiko mota ezartzen ditu gainazaleko ur-masa naturaletarako: Oso ona (1), ona (2), erdipurdikoa (3), eskasa (4) eta txarra (5). Ur-masa artifizialetarako edo oso aldatutako ur-masetarako, potentzial ekologikoa ebaluatzen da, eta lau mota bereizten dira: Gorena edo Ona (2), Erdipurdikoa (3), Eskasa (4) eta Txarra (5).

Unitatea

Informazio iturria	URA Uraren Euskal Agentzia
Kalkulu metodoa	Ibaien kalitatea: egoera ekologikoa. 1. Estazioa
Nahi den joera	Gutxitzea
Beste sistemekiko lerrokatzea	--
Mota	Osagarria

05_11 Ibaien kalitatea: egoera ekologikoa. 2. Estazioa

Ura

Definizioa

Ur-masa baten egoera ekologikoa da bere egoera naturalarekiko duen eraldaketa-maila. Egituraren kalitatearen eta gainazaleko urei lotutako ur-ekosistemen funtzionamenduaren adierazlea da, betiere erreferentziazko baldintzekin alderaketa eginda; kalitatearen adierazle biologiko, hidromorfologiko eta fisiko-kimiko sorta bat hartzen da oinarri hori lortzeko.

Uraren Esparru Zuzentarauak bost egoera ekologiko mota ezartzen ditu gainazaleko ur-masa naturaletarako: Oso ona (1), ona (2), erdipurdikoa (3), eskasa (4) eta txarra (5). Ur-masa artifizialetarako edo oso aldatutako ur-masetarako, potentzial ekologikoa ebaluatzen da, eta lau mota bereizten dira: Gorena edo Ona (2), Erdipurdikoa (3), Eskasa (4) eta Txarra (5).

Unitatea

Informazio iturria	URA Uraren Euskal Agentzia
Kalkulu metodoa	Ibaien kalitatea: egoera ekologikoa. 2. Estazioa
Nahi den joera	Gutxitzea
Beste sistemekiko lerrokatzea	--
Mota	Osagarria

05_12 Ibaien kalitatea: egoera ekologikoa. 3. Estazioa

Ura

